

Real Automóvil Club Vasco Navarrok eta San Telmo Museoa *gouache* baten gordailua berri dute museoaren erakusketa iraunkorrerako

Pedro Martínez de Artola RACVNko Presidenteak eta Susana Soto San Telmo Museoko zuzendariak Eduardo Lagarderen obra baten gordailua berri dute gaur. Kartoi gaineko *gouache* bat da, "II Circuito Automovilista de San Sebastián" titulua duena, eta *Circuito Automovilista de San Sebastián. Organizado por el Real Automóvil Club de Guipúzcoa. Del 22 al 27 de Septiembre 1924* hitzak idatzita dituena. RACVNren jabetzakoa da eta 2009tik museoan gordeta dago. Akordio honen bidez, gordailua berri egiten da 2024ra arte. Pieza San Telmo Museoa erakusketa iraunkorrean ikus daiteke eta 8 zenbakidun lehiaketa-autoa irudikatzen du, abiadura handian.

Eduardo Lagardek egindako jatorrizko *gouache* hau 1924koa da eta Donostiako II. Automobilista Zirkuitua iragartzen zuen kartela egiteko balio izan zuen. San Telmo Museoa goiko klaustroan dago, *Modernitatearen hasiera* arlo tematikoan. Titulu honen bidez, XIX. eta XX. mendeetako gako nagusietako asko biltzen dira, gaur egungo euskal gizartea osatu dutenak.

Gako horietako bat izan zen hirien hazkundera eta modernizazioa XX. mendearen lehen herenean, non aisialdirako eta entretenimendurako modu berriak sortu ziren. Horrela, lehen automobil lasterketak 1923an iritsi ziren Euskal Herrira, urte horretan "Lasarteko zirkuituaren" nazioarteko proba handia ospatu zelarik eta Real Automóvil Club de Guipúzcoa sortu zelarik, denborarekin Real Automóvil Club Vasco Navarra bihurtuko zena. Gipuzkoako zirkuitua 1923 eta 1936 artean Europako nagusien artean kokatu zen.

Real Automóvil Club Vasco Navarro (RACVN) elkarteak antolatutako auto probei buruzko kartel bilduma garrantzitsua du bere funtsen artean. 1923-1935 bitartean Lasarteko Zirkuituan egindako lasterketekin zerikusia duten lanak nabarmentzen dira. Ospe handiko kartelgileek parte hartu zuten urte horietan Donostian egingo ziren lehiaketak iragartzeko balio zuten kartel horiek egiten. Eduardo Lagarde Aramburu izan zen nabarmenetako bat, eta kartelak, programak eta abar diseinatu zituen.

Lagarde (Toledo 1884-1950 Donostia) artista polifazetikoa izan zen. Arkitektoa, marrazkilaria, margolaria eta kartelgilea, "GU" taldeko kide izan zen José Manuel Aizpurua, Jesús Olasagasti, Julián Tellaache, Juan Cabanas Erauskin eta Carlos Riberarekin batera.

Marrazki eta binetekin kolaboratu zuen hainbat aldizkari eta argitalpenetan, eta bereziki "La Voz de Guipúzcoa" Donostiako egunkarian parte hartu zuen 1923 eta 1930 artean. Arkitekto gisa lan handia egin zuen Donostian, Aizpurua eta Labayenekin elkarlanean. Madril eta Toledon ere bere lanak daude. Gerra Zibilaren ondoren, Director de Regiones Devastadas izendatu zuten, eta gerran suntsitutako monumentuen zaharberritzea zuzendu zuen, bereziki Toledon.

San Telmo Museoa eta Real Automóvil Club bi erakundearen arteko lankidetzaren bide berriak aztertzen ari dira.

El Real Automóvil Club Vasco Navarro y el Museo San Telmo renuevan el depósito de un *gouache* para la exposición permanente del museo

Pedro Martínez de Artola, Presidente del RACVN y Susana Soto, directora del Museo San Telmo, han renovado hoy el depósito de una obra de Eduardo Lagarde. Se trata del *gouache* sobre cartón titulado “II Circuito automovilista de San Sebastián”, con la inscripción *Circuito Automovilista de San Sebastián. Organizado por el Real Automóvil Club de Guipúzcoa. Del 22 al 27 de Septiembre 1924*, propiedad del RACVN y que se encuentra depositado en el museo desde el año 2009. A través de este acuerdo se renueva su depósito hasta el año 2024. La pieza puede contemplarse en la exposición permanente del museo y representa un coche de competición con el nº 8, a gran velocidad.

Este *gouache* original realizado por Eduardo Lagarde que sirvió para la ejecución del cartel anunciador del II Circuito Automovilista de San Sebastián, celebrado en 1924, se encuentra situado en el claustro alto del Museo San Telmo en el área temática del Despertar de la Modernidad. Bajo este título se concentra gran parte de las principales claves de los siglos XIX y XX para entender lo que hoy en día conforma la sociedad vasca.

Una de esas claves fue el crecimiento de las ciudades y su modernización en el primer tercio del siglo XX donde surgieron nuevas formas de ocio y entretenimiento. Así, las primeras carreras de automóviles llegaron al País Vasco en 1923, fecha en la que se celebró la gran prueba internacional del “Circuito de Lasarte” y se funda el Real Automóvil Club de Guipúzcoa, que con el tiempo se convertiría en el Real Automóvil Club Vasco Navarro. El circuito guipuzcoano se colocó entre 1923 y 1936 entre los principales de Europa.

El Real Automóvil Club Vasco Navarro (RACVN) cuenta entre sus fondos con una importante colección de carteles referidos a diferentes pruebas automovilísticas organizadas por esta entidad. Destacan las obras relacionados con las carreras celebradas en el Circuito de Lasarte entre los años 1923-1935. Cartelistas de reconocido prestigio participaron en la elaboración de estos carteles que servían para anunciar las competiciones que iban a celebrarse en San Sebastián en esos años. Una de las firmas más destacadas y que colaboró activamente diseñando carteles, programas, etc. fue Eduardo Lagarde Aramburu.

Lagarde (Toledo 1884-1950 San Sebastián) fue un artista polifacético además de militar de carrera. Arquitecto, dibujante, pintor y cartelista, fue miembro del grupo “GU” junto a José Manuel Aizpurua, Jesús Olasagasti, Julián Tellaeché, Juan Cabanas Erauskin y Carlos Ribera.

Colaboró con dibujos y viñetas en diferentes revistas y publicaciones destacando especialmente su participación en el diario donostiarra “La Voz de Guipúzcoa” entre los años 1923 y 1930. Como arquitecto trabajó intensamente en San Sebastián, colaborando en diversos proyectos con Aizpurua y Labayen. Hay obras suyas en Madrid y Toledo.

Tras la Guerra Civil fue nombrado Director de Regiones Devastadas y dirigió la restauración de monumentos que habían sido destruidos durante la contienda, especialmente en Toledo.

El Museo San Telmo y el Real Automóvil Club estudian además nuevas vías de colaboración entre las dos instituciones.

